

Udal gobernuak 2022rako prestatu duen aurrekontu-proiektua 21.049.127 eurokoa da, hau da, % 4,18ko igoera du, aurtengo ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta. Dokumentu honen hasiera-hasieratik azpimarratu nahi dugu hemen ageri diren kopuruak Foru Funttsaren zenbatekoa jakin aurrekoak direla; datu hori Gipuzkoako Foru Aldundiak eman behar du, eta horren arabera, aurrekontuak goranzko aldaketa izan dezake, horretarako ezarri den epean zuzenketak eginez.

Beste behin ere, azpimarratu beharra daukagu aurrekontu bat egitea lehentasunak ezartzea dela; eta, beste behin ere, horietako bat, esango nuke nagusia, aurrekontu sozialak egitea izan da, gastu sozialari eta herritarrentzako zerbitzu publikoei lehentasuna emanez. Aurtengo ekitaldiko aurrekontuarekin gertatu zen bezala, hiru eurotik bi oinarritzko zerbitzuetara eta gizarte-laguntzetara bideratuko dira. Adierazi berri dudan hori aurrekontuetan jasotako kopuruetan ikus daiteke: oinarritzko zerbitzu publikoetara bideratutako partidak % 40,8 (8.599.351 euro) dira, eta gizarte zerbitzuetara bideratutakoak % 20 (4.228.000 euro).

Inbertsioei dagokienez, 632.500 euro jaso dira horretarako, besteak beste, honako jarduketak egiteko: haur-parkeak, Donibaneko ludotekaren birgaitzea, udal kirol instalazioetako galdarak berritzea, LED argiak Andonaegiko futbol-zelaian, Andonaegi berroneratzeko planaren baterako finantzaketarako udal ekarpena. Inbertsio horiez gain, kapital-transferentzien atalean partida bat sartu da, Donibaneko saneamendu proiekturako udal-ekarpenerako, zati batean udalaren eskumenekoa ere badelako.

Bestalde, azpimarratu beharra dago inbertsioaren bolumena handitu egingo dela, ekitaldi guztietan gertatzen den bezala, gobernu honek beste konpromiso batzuk lortzeko beste administrazio batzuekin egiten duen lanari esker. Horren erakusgarri da, adibide bat jartzearren, aurtengo aurrekontua. 2021eko hasierako aurrekontua 20.160.000 eurokoa zen, eta egun 24.000.000 euroan gaude; igoera hori ez da bakarrik izan inbertsioetarako finantziazioan, baita gastu arruntean ere.

Diru-sarrerei dagokienez, aipatu behar da ekitaldi honetan ezohiko diru-sarrera bat dugula EIOZen, Adinberri proiektuaren eta Foru Funttsaren gehikuntzaren ondorioz. Hasieran adierazi dudan bezala, Foru Funttsa ez dago osorik jasota aurkeztutako aurrekontu-dokumentuan, eta, behin betikoan ere ez da jasoko, Gobernu honek beti indarrean duen aurrekontu-zuhurtasunaren printzipioari jarraituz: "arinkeriak ordaindu egiten dira". Ez dugu ahaztu behar, inork ez du ahaztu behar, funtsezko gertaera bat: zerga-arauak aurtengo urterako etenda daude. Beraz, "aditzaile onari..."

Beti aipatzen dudan arren, eta ziurrenik errepikakortzat joko banaute ere, dokumentu honetan jasota utzi nahi dut gauza bat; izan ere, hala egin ezean, norbaitek ondorio okerra atera dezake eta pentsa dezake amore eman dugula; alegia, borrokan jarraituko dugula, gure udalerrriak aitortza eta konpentsazioa izan dezan, udalerrri barruan dugun azpiegitura handi bat izateagatik jaso ez ditugun diru-sarrerengatik. Ez dugu pribilegiarik eskatzen, berdintasuna eta bidezko tratua eskatzen ditugu.

Bukatzeko, laguntza eskatzen dut. Barne mailan, udalaren helburu asko guztiontzako amankomunak izan behar direlako, eta kanpora begira, beste administrazio batzuek ekitate-irizpidea aplikatu behar dutelako Pasaiarekin.

Agiri hau idazten ari naizen unean aurrekontu-proiektuaren zenbatekoak jada aurkeztu eta azaldu zaizkie udal talde guztiei, eta, beste behin ere, ez dago zalantzarik gobernu hau haiekin akordioak lortzen saiatuko dela. Adostasunak lortzeko eta akordioak egiteko, ahalegin handia egiteko prest egon behar dugu. Hemen eta orain ikuspegi zabala izatea eskatzen dut, Covid 19ak eragindako krisia gainditzeko, eta gure udalerraren garapen eta hobekuntzarako funtsezko proiektuak abian jartzeko.

Pasaian, 2021eko urriaren 25ean
Izpta.: Izaskun Gómez Cermeño
Pasaiaiko alkatea